

Ordizian, **2016ko abenduaren 1ean** Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, APARTEKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EHBildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EHBildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EHBildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako EHBildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EHBildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M ^a .Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
----------------------------	---------

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicege jauna.

EGUNEKO GAI ORDENA

1.- 2017ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalari alegazioak.

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:35



Alkate jn.

Alkate jaunak azaldu du zergatik egin den aparteko osoko bilkuraren deialdia. 2017rako ordenantza fiskalen erakusketa publikorako epearen barruan hiru alegazio aurkeztu dira eta beharrezkoa da osoko bilkurak horiek ebaztea eta behin betiko izaeraz ordenantzak onartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzeko.

Azaldu du, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak ez duela puntuaren irizpenik eman eta horretarako osoko bilkurak puntuaren presazko izaera onartu behar duela eta eguneko gai zerrendan sartzea onartu behar duela.

Presazko izaeraren bozketa.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 4, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

12.- 2017ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalari alegazioak.

Alkate jn.

Alkate jaunak azaldu du hiru pertsonen alegazioak aurkeztu direla baina bi alegazio motetan multzoka daitezkeela:

- 1.- Arrandegietako titularrek aurkeztutako bi alegazio salbuespena eskatuz.
- 2.- G.A. arotzeria metalikoak egindako alegazioa tarifa murrizteko.

Aurkeztutako proposamena aztertzen da onartzeko eta proposamena onartzen da ondorengo moduan:

Proposamena

2016ko urriaren 6ko osoko bilkuran 2017ko urterako Ordenantza Fiskalak onartu ziren. Onarpen hau 2016ko urriaren 14ko 195 zenbakidun GAOn argitaratu zen.

Jendaurreko erakusketa epean hiru alegazio aurkeztu dituzte, horiek guztiak 6 zenbakidun Ordenantza Fiskalari egindakoak izan dira, zerbitzu publikoak emateko eta administrazio jarduerak burutzeko tasa arautzen duen Ordenantzari jarritakoak.

Aurkeztutako alegazioak honako honen ingurukoak dira: jardueraren titularrek sortzen dituzten hondakin guztiak edo zati handi bat beraien kabuz birziklatzea eta ondoren GARBIGUNera garraitzea ekartzen duen gastuari buruzkoak. Gastu honi aplikatu beharreko tasa kentzeko eskatzen dute.

Hori guztia ikusita, ondorengo proposatzen da

AKORDIORAKO PROIEKTUA.-

- 1) Bi arrandegik egindako alegazioei dagokienez, proposatutako 107,02ko tasa mantentzea erabaki da kopuru hori kalkulatzeko horrelako establezimenduek egindako erreziklatze-ahalegina kontuan izan delako, eta tasa dagoeneko 286,29 eurotik 107,02 eurora jaitsi delako.
- 2) G.A. Arotzeria Metalikoak egindako alegazioari dagokionez, berriz, Sasietak jasotzen ez dituen hondakinen frakzioari dagokionez Garbigunek fakturatutako zenbatekoan tarifaren murrizketa onartzea, baina gutxienez aplikatu beharreko tarifa mugatzea 107,02 eurora enpresa, establezimendu eta industria txikiari orokorrean".

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 4, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak hori egiaztatzen dut.